

GazteTEK Gabonak

Informazio gehiago izateko: **Gazteen Zerbitzua - Tel: 943 64 47 52**



Hondarribiko Udalak **GAZTE TEK doako tailer teknologikoen** ekitaldi berri bat antolatu du. Ekimen hau Hondarribia Abian Hondarribiko Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Planaren barruan txertatuta dago, eta Bidasoa Bizirik sozietatearen lankidetzarekin egiten da.

Tailer horiek Gabonetako eskola oporraldian egingo dira, eta 8 urtetik 13 urte bitarteko umeei zuzenduta daude. Programatutako tailerren helburua haien buru-argitasuna sustatzea da, jarduera teknologiko dinamiko, sortzaile eta berritzaileak direla medio. Tailer teknologikoen horien bidez haien asmamena sustatzen da eta sormen ekintza pizten da. Gaztetxoen ekintzailtza izpiritua piztu nahi da, eta bide batez, teknologia berrietara hurbilarazi hainbat gai dituzten lantegien bidez: programazioa, robotika, errealitate areagotua, eta 3D inprimatzea. Proposatutako jarduera guztiak praktikoak dira, eta erabiliko diren tresnak errazak eta intuitiboak direnez, sormen gaitasunak sustatzen lagunduko dute.

8 URTETIK 10 URTE BITARTEKO PARTE-HARTZAILEAK

2021eko abenduaren 27,28, 29,30 eta 2022ko urtarrilaren 3 eta 4

• 09:30 - 13:30

ROBOTIKA, ERREALITATE AREAGOTUA ETA 3D INPRIMATZEA (12 ORDU)

Tailer honetan hainbat jarduera egingo dira: robot bat muntatzea, bere funtzioak programatzea eta operazio berriak egin ditzan bere mekanismoak berrasmatzea eta robotari errealitate areagotua hornitzea. Teknologia berritzaile hori nola dabilen ikasiko dute, beraien betaurrekoak eta beraien 3D agertokiak eraikiz, horiekin elkarreraginean aritzeko. Tailerra amaitzeko, 3Dko diseinuari eta inprimaketari buruzko oinarrizko ezagutzak ikasiko dira.

11 URTETIK 13 URTE BITARTEKO PARTE-HARTZAILEAK

2021eko abenduaren 27,28, 29,30 eta 2022ko urtarrilaren 3 eta 4

• 09:30 - 13:30

ROBOTIKA, ERREALITATE AREAGOTUA ETA BIRTUALA ETA 3D INPRIMATZEA (12 ORDU)

Tailer honetan taldeko jarduerak egingo dira, eta robotikaren kasuan ibilgailu robot bat muntatu eta programatuko da. Programatu ondoren, parte-hartzaileek robotari animazioz hornitzeko eta robota tablet edo mugikor batetik ikusteko mekanismoak ezarriko dizkiote. Parte-hartzaileek eurek egingo dituzten hiru dimentsioetako betaurrekoak erabiliz errealitate areagotuaren teknika ezagutuko dute. Azkenik, 3D inpresioa landuko da, elementuak diseinatu eta inprimatuko dira, eta tailerraren lehenengo fasean diseinatutako robotari erantsiko zaizkio.

Informazio orokorra

Plaza kopurua **10 tailer bakoitzeko**

Non: **Soroetako Ikastetxea - Hondarribia**

Orduategia: **9:30 – 13:30**

Tailerrak **doakoak** izango dira

Zozketa egingo da, plaza baino eskabide gehiago badago.

Izen-ematea

- **Azaroaren 29tik abenduaren 8ra:**
- **Udalaren webgunea** www.hondarribia.eus
- **Gazteen Zerbitzua**
Javier Ugarte, 6 - 943 644752
Astelehenetik Ostiralera: 16:30-19:30 - Larunbatean: 10:00-13:00

GazteTEK Gabonak

Para más información: **Gazteen Zerbitzua - Tel: 943 64 47 52**



El Ayuntamiento de Hondarribia organiza una nueva edición de los **talleres tecnológicos gratuitos GAZTETEK**. Esta iniciativa se enmarca en Hondarribia Abian, el Plan de Empleo y Desarrollo Económico de Hondarribia en colaboración con Bidasoa activa.

Estos talleres se celebrarán durante las vacaciones escolares de Navidad y están dirigidos a niños y niñas de 8 a 13 años. Los talleres programados facilitan promover su ingenio con actividades tecnológicas dinámicas, creativas e innovadoras. A través de estos talleres tecnológicos se fomenta su inventiva y se estimula el emprendimiento creativo. Se busca despertar el espíritu emprendedor y acercarlos a las nuevas tecnologías mediante talleres de diversas temáticas como la programación, la robótica, la realidad aumentada y la impresión 3D. Todas las actividades propuestas son prácticas, y las herramientas que se utilizan, de fácil uso e intuitivas, ayudan en el fomento de las habilidades creativas.

PARTICIPANTES DE EDADES ENTRE 8 Y 10 AÑOS

27-28-y 29 de diciembre • 09:30 - 13:30

ROBÓTICA, REALIDAD AUMENTADA E IMPRESIÓN 3D (12 HORAS)

Durante este taller se realizarán actividades en grupo que irán desde montar un robot, programar sus funciones y reinventar sus mecanismos para que pueda efectuar nuevas operaciones y dotarán de realidad aumentada al robot. Aprenderán cómo funciona esta innovadora tecnología, construyendo sus propias gafas y sus propios escenarios 3D con los que podrán interactuar. El taller concluirá con el aprendizaje de conocimientos básicos de diseño e impresión 3D.

PARTICIPANTES DE EDADES ENTRE 11 Y 13 AÑOS

30 de diciembre de 2021 y 3 y 4 de enero de 2022 • 09:30 - 13:30

ROBÓTICA, REALIDAD AUMENTADA Y VIRTUAL E IMPRESIÓN 3D (12 HORAS)

Durante este taller se realizarán actividades en grupo que consistirán en el caso de la robótica en el montaje y programación de un vehículo robot. Una vez programado los participantes integrarán al robot mecanismos que permitan dotarle de animación y

observarlo desde una tablet o un móvil. Utilizando las gafas tridimensionales que los propios participantes construirán conocerán la técnica de la realidad aumentada. Finalmente se trabajará la impresión 3D, se diseñarán elementos y se imprimirán que se incorporarán al robot diseñado en la primera fase del taller.

Información general

Nº de plazas: **10 por taller**

Dónde: **Soroetako Ikastetxea - Hondarribia**

Horario: **9:30 – 13:30**

Los talleres serán **gratuitos**

Se realizará sorteo, en el caso de que haya más solicitudes que plazas.

Inscripciones

- **Del 29 de noviembre al 8 de diciembre**
- **Web del Ayuntamiento** www.hondarribia.eus
- **Gazteen Zerbitzua**
Javier Ugarte, 6 - 943 644752
Lunes-Viernes: 16:30-19:30 - Sábado: 10:00-13:00